

**OFICINAS Y DESPACHOS**  
**SIN CONVENIO**  
**HURRENGO MOBILIZAZIOAK**  
**PRÓXIMAS MOVILIZACIONES**

**AZAROAK 27 NOVIEMBRE**  
Bezereen aurrean konzentrazioak  
Concentraciones frente a clientes

**ABENDUAK 13 DICIEMBRE**  
Kontzentrazioak enpresetan  
Concentraciones en empresas

**URTARRILAK 18 ENERO**  
Manifestazioa/Manifestación  
Plaza Biribila 19:00

**OTSAILAK 1 FEBRERO**  
**GREBA/HUELGA**  
**BULEGO ETA LANGELAK**  
**HITZARMENIK GABE**  
#bulegoakborrokan #oficinasenlucha

**ELA** EUSKAL SINDIKATUA **LAB** **esk** **CGT** **CNT**

*Bihar, urtarrilak 18, 19:00etan, manifestazio bat egingo dute Bizkaiko bulego eta langleetako langileek, Plaza Zirkularretik abiatuta. Otsailaren 1ean, berriz, greba eguna egingo dute. "Mobilizazio hauek ez dira egitarau baten amaiera, hasiera baino ez da. Greba deialdi honetatik aurrera, mobilizazio dinamika areagotuz joango gara, gure helburua lortzeko: herrialdeko hitzarmen duin bat"; jakinarazi dute.*

Badira jada sei urte hitzarmenik gabe daudela Bizkaiko bulego eta langiletako langileak. "Argi izan behar dugu, historiak ere horrela erakutsi digulako, soilik borrokatzen lortuko dugula gure helburua den Bizkaiko bulego eta langleetako hitzarmen duin bat sinatzea. Askok gara, 22.000 inguru zehazki, helburu honetan bat egiten dugunok. Beraz, joan gaitezen

elkarlanean aurrera, kalera, herrira auzora, lantegietara eta ozen adierazi dezagun ez gaudela prest hitzarmenik gabe denbora gehiago egoteko. Gure indarrean sinetsi eta egoera iraultzeko unea iritsi zaigu"; adierazi dute langileen ordezkariak.

—